

EUSKAL SELEKZIOA – FIDE SELEKZIOA: XAKEKO SELEKZIOEN ARTEAN NAZIOARTEKO NEURKETA (2020ko abenduaren 12an, Donostian)

IRATI LASECA ETA EIHARTZE BUIZA, FIDE SELEKZIOA GARAITU ZUEN EUSKAL SELEKZIOAN

Euskal Selektzioa – FIDE Selektzioa: 6'5-5'5.

1. Iñigo Argandoña Riveiro (2.435) (Euskal Selektzioa) – Patrice Etchegaray (FIDE Selektzioa) (2.313): 0'5-0'5 eta 0'5-0'5 (1-1).
2. Santiago Gonzalez De la Torre (2.422) (Euskal Selektzioa) – Elvis Hernandez (Dominikar Errepublikar) (FIDE Selektzioa) (2.263): 1-0 eta 0-1 (1-1).
3. Alejandro Franco Alonso (2.405) (Euskal Selektzioa) – Xavier Beudaert (Frantzia) (FIDE Selektzioa) (2.247): 0'5-0'5 eta 1-0 (1'5-0'5).
4. **Eihartze Buiza Prieto (2.080) (Euskal Selektzioa)** – Elisabet Ruiz Font (Katalunia) (FIDE Selektzioa) (2.085): 1-0 eta 1-0 (2-0).
5. Cecilia Perez Sodupe (1.842) (Euskal Selektzioa) – Gisela Roque Sola (Mexiko) (FIDE Selektzioa) (2.046): 0'5-0'5 eta 0'5 (1-1).
6. **Irati Laseca Arana (1.810) (Euskal Selektzioa)** – Haizea Tornay (Alemania) (FIDE Selektzioa) (1.678): 0-1 eta 0-1 (0-2).

Irati Laseca Arana nafarrak parte hartu zuen Euskal Selektzioan eta eloaren arabera faboritua zen Haizea Tornayren aurka. Hau, ordea, Alemaniako Txapelketa jokatzetik zetorren eta sasoi hobia erakutsi zuen. Beraz, bi partidak galdu zituen Irati Lasecak.

Eihartze Buiza Prietok ere jokatu zuen Euskal Selektzioarekin. Bizkaitarra izanik ere, Iruñean bizi da orain eta Nafarroako Xake Federakundeko monitorea da. Elisabet Ruiz Font katalanaren aurkako neurketak oso orekatuak agertzen ziren hasiera batean. Gero, ordea, bi puntuak bereganatu zituen eta Euskal Selektzioaren garaipenean jokalaria giltzarria izan zen. Bi partidak irabaztea lortu zuen euskal jokalaria bakarria izan zen.

Donostian jokatu zen Gros xake Taldearen egoitzan, arratsaldeko 4 eta erdietatik 6 eta erdietara. 15 minutuko partidak izan ziren, gehi 10 segundo jokaldiko. Epailea Aritz Idiazabal Troyas nafarra izan zen.

Parte hartzaileen erdiak emakumeak izan ziren, emakumeen artean xakea bultzatzea baita Euskal Xake Federakuntzaren asmoetako bat.

Koronabirusaren pandemiak osasun neurriak hartzea eragin zuen, baina ez zuen galarazi Euskal Selektzioak bere indarra berriz erakustea, beti selektzio ofiziala izatearen aldarrikapena ipar.

Antolatzailea: Euskal Xake Federakuntza, Gros Xake Taldea eta Gipuzkoako Xake Federakundeen laguntzarekin.

Beste laguntzaileak: Eusko Jaurlaritza, Donostia Kirola eta Euskal Kirol Federazioen Batasuna (EKFB).









Cesar Montolio Benedicto Gipuzkoako Xake Federakundeko lehendakariak oroigarriko trofeoa eman zion Euskal Selekzioko Irati Arana Lasecari.

2020-12-12.

Iturria: Euskal Xake Federakuntza.